

IL ULERMEN PROBA • <i>Ortziren hortza</i>
Izen-deiturak Taldea
> Markatu (X) erantzunak (15) test laukian: A B C
> Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik.

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		15
Kalifikaz.		/ 10

1	<p>—Zu Orreagako mendatean izan zinen? —Orreagako mendatean? Gaur entzun diat lehenengo aldiz izen hori; gaur, haurrentzako hire ipuintxoaren entzuten ari ziren tontolapikoengana hurbildu naizenean. —Errolanen Kanta, haurrentzako ipuintxoak? —sumintasunez. —Haur inozo eta sinesberentzat. Sarrazenorik ez zuan inon, eta zenbait mendatetan gertatu zuan, ez batean eta ez zitean izenik. —Mundu guztiak daki Errolan heroikoki hil zela Orreagako mendatean, armada sarrazeno mila handiz handiago batekin borrokan. Mundu guztiak daki.</p>	<p>a) Mikelot eta Gartxot elkarrekin hizketan ari dira. b) Hunaldo izeneko soldadu franko bat eta koblakari ezezagun bat dira berbaz dabiltzanak. c) Mutarrif buruzagiak kargu hartu dio Errolanen gezurrezko istorio bat kontatzen aritzen den bati.</p>
2	<p>Musika entzuten aurrenekoak haurrak. Tropa garrasilaria —soldadu txikiak oso— lasterka musikariengana, jauzika, barrezka, arrotzen keinuak imitatzen. Mikelotek erritmo saltakaria markatzen zuen danbor arin batez, aitzak aire ozenak jotzen zituen flauta hiru zulodunaz; bien orkatiletan kaskabuloak. Haur asalduak inguruan sartu ziren herrixkara, zeinak pezozko etxeak eta zurezko ikuiluak baitzituen. (...) Mikeloten begiak neskato oso beltzaran batengana joan ziren. Kapelurik gabe, adatsa airean zebilkion gorputza norabidez aldatu ahala.</p>	<p>a) Mikelot eta Gartxot Oartzunera iritsi dira eta harrera alaia izan dute. b) Frankoen armada dagoen herrira iritsi da Mikelot aitarekin, eta han preso duten neskatila bat ikusi du. c) Mikelot eta aita Gartxot Iruñera iritsi dira; han neska arabiar bat ezagutuko du Mikelotek.</p>
3	<p>—Oparitxo bat, sendabelarrak dira. Mikeloti larruzko poltsatxo bat pasatu zion. Atalka, barruan, hosto lehorrak. Banan-banan hasi zen Idoia: —Echium, sugeen hoskaden eta intsektuen helduen kontra. Plantaina, zauriak errazago orbaintzeko; ez ahal duzu erabiliko! Hypericum; triste, bakarrik sentituz gero, hartu, usaina arnastu. Nirekin ere gogoratuko ahal zara! Irribarre zabalez bi gazteak. Elkar aurkitu izanaz alai. —Eta hau, nire lagun Aralar!</p>	<p>a) Idoiak belar batzuk eman dizkio Mikeloti, eta bere senargai Aralar aurkeztu dio. b) Idoiak sendabelar batzuekin batera Aralar izeneko txakurtxo bat oparitu dio Mikeloti. c) Elkar agurtu dutenean, Idoiak belarrak dituen poltsatxo bat eta zaldi bat eman dizkio opari Mikeloti.</p>
4	<p>Beranduegi eta espantuz igarri zion tranpari: habiatik zaldi gorotz epel ketsua erori zen. Bi gaizkileek hanken ahalegin osoan egin zuten ospa, kaleetatik arineketan, biltegietan zehar... Hurrengo egunean etorriko zen zigorra, mundu guztiak ezagutzen baitzituen Iñigo Aristaren eta Oneka emaztearen semeak. Potes zaharra Ximenoren hornitzaile nagusienetakoa zen...</p>	<p>a) Mikelot oroitu da txikitako pasadizo batez, bere anaiarekin batera Potes zaharrari egin zioten gaiztakeriaz. b) Potes, frankoen merkatari ezagun bati bi gaizkilek egindakoagatik, bi umek ordainduko dute zigorra. c) Eneko eta Fortum umeak olgetan ibili eta Iruñeko merkatari judu bati azpikeria bat egin diote.</p>
5	<p>—Ni itzuli baino lehen, Iruñeko herriak, edo batzarrak edo dena delakoak, gizon bat izendatuko du, bat besterik ez hiria gobernatzeko. Haren leialtasun zina entzungo dut eta nire basailua izango da, horrela nire babesa irabaziko duzue. Bigarrenik, ni itzultzerako hiriko eta inguruko gizon, emakume eta haur guztiak bataioa hartu behar dute eta Jainkoaren etxean sartu.</p>	<p>a) Iñigo Aristak Iruñeko biztanleei agintari bat aukeratzeko eta kristautzeko agindu die. b) Karlomagnok Iruñean bere menpeko buruzagi bat jartzeko eta hiriko jendea kristautzeko agindu du. c) Errolanek bere baroiei agindu zorrotzak eman dizkie, Iruñea zelan gobernatu behar duten.</p>

6	<p>Anabasa hartan Mikelotek lurrean zirauen, ipurdi gainean eserita, hankak irekita. Sudurra bi hatzez pintza eginez itxita, burua atzeraka, kontatu zuen amaiera.</p> <p>—“Gaur egun, oraindik ere, Aralarren, San Migeletik Madotzerako bidean, Sollaundi mendiaren magalean dago Erroldanarri, baina hobe da ez hurbiltzea, kiratsa ez delako erabat suntsitu.”</p> <p>Algara gehiago. Umore horixe estimatzen zuten gerra gizonak, ez zuten besterik behar.</p>	<p>a) Mikelotek frankoak barreka jarri ditu, eta barre egin die beraiei iseka egiten dien istorio batekin.</p> <p>b) Mendietako gerlarien aurrean, Mikelotek istorio barregarri bat kontatu du.</p> <p>c) Zaragozan harrapatuta, Mikelotek soldadu sarrazenoei frankoen istorio barregarri bat kontatu die.</p>
7	<p>—Erabat hustu dute hiria –Olivier.</p> <p>—Horregatik urruntzen gaituzte –Errolan–. Denbora irabazi nahian.</p> <p>—Gizonak sakrifikatu dira familiak ondasunak hartuta salba daitezten.</p> <p>—Borrokan ere badu meriturik haien kemenak. Hiria hustea ondo datorkigu, errazago pasatuko da armada, eta daramatzatenen beharrik ez daukagu.</p> <p>—Hortxe ditugu gerrariak, ordea; horrela segitzen badute, bizitza sakrifikatzeko prest badaude ordu batzuen truke, geuk galduko dugu denbora baliosa.</p>	<p>a) Frankoak ohartu dira euskaldunek Iruñea hustu dutela eta itxurazko borrokaldi bat antolatu dutela.</p> <p>b) Zaragozara bidean, Tutera menperatu nahi dute frankoek, baina bertakoek aurre egin diete.</p> <p>c) Zaragozara iritsita, hasi dira frankoen eta sarrazenoen arteko lehenengo borrokaldiak.</p>
8	<p>Ximenok hitz egingo zuen Pirinioetako menditarren izenean; Mutarrifek lautadako Banu Qasitarrenean; Sancho izango zen kristauen ahotsa, hauek ere lautadakoak. Zaharra berbera zen etorria, sartaldeko menditar zailduen ordezkari. Lodi izeneko menditar gerrari bat, urritzaren adarra bezain segaila zen Iruñearen, Gasteizen eta itsasoaren artean bizi zirenena. Pirinioetako mendatez iparraldekoentzat Sara izeneko zegoen. Eta inguruan, oso ugari, jendea.</p>	<p>a) Erriberrin, Sanchoren gazteluaren aurrean hainbat buruzagi eta jende bildu dira frankoei ongi etorria egiteko.</p> <p>b) Iruñeko katedralaren ondoko plazan bilera bat izango da Karlomagno-rekin, eta ordezkari garrantzitsuak agertu dira.</p> <p>c) Lezaunen, Lizarratik hurbil bildu dira euskal buruzagiak, frankoen aurrean zer jarrera hartu adosteko.</p>

9	<p>—Kapitaina, zure waliak zentzua galdu du...</p> <p>Al Hussaynek aitzora bota zuen eskua. Heriosuhar begiratzen zion Sulaymani. Baina frankoak ari ziren lurreratzeak imanak bezala erakartzen zuen.</p> <p>—Orain jakiak, gari zakuak..., irina..., irin gehiago...</p> <p>—Zoratuta dago! –deiadarka Sulayman, izerditan blai.</p> <p>“Materiala...” pentsatu zuen Al Hussaynek.</p>	<p>a) Zaragoza hirian, Sulayman haserre dago Al Hussaynen aurka, honek ez baitie eman nahi hiria frankoei.</p> <p>b) Al Hussayn Zaragozago waliak burua galdu du frankoen armada handia ikustean, bere boterearen amaiera hurbil ikustean.</p> <p>c) Al Hussayn eta Sulaymanen arteko borroka gertatuko da, lehenengoak tratua egin nahi baitu frankoekin.</p>	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>A</th> <th>B</th> <th>C</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>2</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>3</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>4</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>5</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>6</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>7</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>8</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>9</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>10</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>11</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>12</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>13</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>14</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>15</td><td></td><td></td><td></td></tr> </tbody> </table>		A	B	C	1				2				3				4				5				6				7				8				9				10				11				12				13				14				15			
	A	B	C																																																																
1																																																																			
2																																																																			
3																																																																			
4																																																																			
5																																																																			
6																																																																			
7																																																																			
8																																																																			
9																																																																			
10																																																																			
11																																																																			
12																																																																			
13																																																																			
14																																																																			
15																																																																			
10	<p>—Esadazu, polit horrek, ahots hori... zure herriko hizkuntzan ari da, ezta? Idoiak ez zion erantzun, arriskugarria izan zitekeen Mikelotentzat.</p> <p>—Neure buruari agindu nion ahal izanez gero zuen herriari laguntzen arituko nintzela. Nola lagunduko nizuke?</p> <p>—Ezin didazu lagundu. Ezin dituzu muraila hauek desegin.</p> <p>Bestaldeko horrek zeharkatu ditu, ba, murailak ahotsaz, eta bere musika ematen dizu. Ez diozu zerbait eman nahi?</p>	<p>a) Idoia Zaragozan preso dagoelarik, kartzela zaindari batek txantaia egin nahi dio.</p> <p>b) Jâbir-ek Idoiari lepokoa eskatuko dio Mikeloti emateko, mezu gisa.</p> <p>c) Zaragozan preso, Idoiak beste euskaldun batekin topo egin du eta elkarrekin ihes egiten saiatuko dira.</p>																																																																	

11	<p>—Agur esatera natorrek. —Desertatu behar duk? Hil egingo haute zaindarien! —Ez hadi kezka niregatik. Bizitza salbatu hidan, ez diat sekula ahaztuko. —Ondo zegok, infernuko poeta. Har ezak hau opari. Aizto herdoildu kamutsa. —Ezin diat... —Hago isilik, txori kaka! Nik beste hau irabazi nian bart, jokoan. —Eskerrik asko ba. —Beharko duk hemendik irteteko; zaindarien bazekitek, ondo asko, zer egin behar den desertoreekin.</p>	<p>a) Mikelotek ihes egin behar du frankoen armadatik eta soldadu lagun bati egur esatera hurbildu da. b) Soldadu franko bati ihes egiten lagundu behar dio Mikelotek, baina oso arriskutsua da. c) Zaragoza setiatu dago eta Idoiari lagundu dion Jâbir-ek ihes egin nahi du.</p>
12	<p>Pixkanaka etorri zen Mikelot bere onera. Burrundara jasanezina buruan... erredura kaskezurrean... eskua ilera eraman eta blaitu egin zuen odoletan. Ari zen gogoratzen: erori zen kalean, bakarrik, gorputzak huts egin zion; Iñigo eta Onekaren bi semeak etxean sartzen ikusi zituen, ukuilutik. Gizonkote batek heldu, etxe barrura sartu arrastaka basa zabarkeriaz, eta paretaren kontra bota zuen, fruitu ustela bezala. Ari zitzaion burua bizkortzen. Gela handian betiko lanpara txikia argitzen, eta doinuak... orru eta arnas hots asalatuak, oihi marrantatuak. Barreak ere bai. Forma hartzen ari zitzaion gorputz anabasa bati. Gizon batzuk jolas ezin ankerrago batean ari ziren gorputz biluzi, zuri, geldi batekin.</p>	<p>a) Mikeloti eraso egin diote lapur batzuek eta Eneko eta Fortum umetxoak eraman dituzte. b) Mikelot zaurituta gertatu da Zaragozako setioko ihesaldian eta orain preso baten torturak entzuten ari da. c) Iruñean sarraskia eragin dute frankoek; Mikelot zaurituta gertatu da eta izartzean Leire lehengusinarene hilketa ikusi du.</p>
13	<p>—Hauxe egingo duk orduan: Atarrabiako mezulariak ezohiko bideetatik eramango hau Iruñeko hegoaldetik gau honetan bertan. Gero ahalik azkarrena joko duk ekialdera. Urrotzetik egunsentia baino lehen iritsi behar duk Agoitzera. Handik Irati ibaian gora, behin ere aldendu gabe. Baso sakratuan sartzerakoan ez beldurrik izan, ahaztu sineskeriak, egiteko bat daukak! Batez ere, ez urrundu ibaitik!</p>	<p>a) Ximeno Indartsuak Gartxot Iratiko baso sakratura bidaliko du mezu batekin. b) Mikelot bidaliko dute Ortziren Hortza esnatzera: Basajauna aurkitu behar du Iratiko basoan. c) Gartxotek bere seme Mikelot proba bat gairatzen bidaliko du baso sakratura.</p>
14	<p>Beste oinartzargi bati esker arbola barne huts baten forma ikusi zuen. Haztamuka harantz ibili, aurkitu, higuin pittin batez sartu eta barrunbe beltz hartan kuzkur-kuzkur egin zen. Pentsamenduak berriz erasoan; txikia zen, ñimiñoa, arbuigarria. —Den-dena gaizki egin dut. Aita Ortziren Hortza aurkituko nuelakoan eta huts egin diot. Galdu dut bidea, zaldia, baita neure burua ere. Pixkanaka urrundu zen ekaitza, gero eta nagiago trumoi. Argirik bazen une ilaunetan zekusanak hotzikaritzen zuen Mikelot. Pago handien azalari ura zerion. Eskuinean hiru forma zuri eta zuzen zeuden lerrokaturik, beso ugariak mehatxuka jasorik.</p>	<p>a) Iratiko basoan galdu egin dira Mikelot eta Gartxot; Mikelot ekaitz baten erdian harrapatuta geratu da. b) Mikelot ekaitz baten erdian dago Iratiko basoan, ahul. Orduan hiru sorgin agertu dira eta laguntza emango diote. c) Mikelot basoan galdu da ekaitz baten erdian; ahul dago eta haluzinazioekin.</p>
15	<p>Gaueko argi goibelak zera erakusten dio: haur batek gorpu bat darama besotik arrastaka, indar guztiaz; ez du aurreratzen ia. Ziurrenik aita den hori bizirik dagoelakoan haurra. Hamar urte ere ez ditu edukiko. Errolanengan jartzen ditu begi beltz oso irekiak eta arineketan egiten du ospa. Bat-batean, geratu egiten da, atzera eginez aitaren gorpura doa eta zerbait hartzen dio gerritik.</p>	<p>a) Errolanen amaiera kontatzen da: zaurituta dago, noraezean, eta mezu batek emango dio azken sastakada. b) Borrokako zauriengatik, Errolanek amesgaiztoak ditu: ume bat ikusi du aita hila arrastaka eramaten. c) Borrokaldi aurreko egunean Errolanek pentsamendu txarrak eduki ditu, ezin izan du lorik egin.</p>